

Ikasteko aukera barriak urte barriaren hasikereagaz batera

12. orrialdea

Espedizinoa abian Txikonek

Hilaren 18an, Alex Txikon Lemoako mendizalea Karakorum-era abiatuko da Laila Peak (6.096 m) neguan igoteko asmoz. Beragaz, Sebastian Alvaro, Juanjo San Sebastian, Ramon Portilla eta Jose Manuel Fernandez izango dira. Espedizino honen gorabeherak www.alextxikon.com webgune barrian jarraitu ahal izango dira. **11. orrialdea**



Julen Zubero hamargarren Espainiako Ziklo-kros Txapelketan

10. orrialdea

begitu

TOKIKOM
arratia ubide zeberio

178

2013ko urtailaren 17a
hamabostekaria
www.begitu.org

Artean topautako eskuizkribuaren argitalpen kritikoa egin dau Juan Rekaldek

Arteako Goiko baserriko kamanan topau eban Sara Iturbek Ulpiano Uriartek idatzitako kuadernotxo bat egurrezko maleta baten barruan. Azalean, *Libro de las eselencias del año 1902* eta barruan, otoitz bat euskeraz.

Arratia Institututuko euskera irakasle dan Juan Rekaldek ikerketa bat egin eta argitara emongo dau denpora gitxi barru Euskalingua Mendebalde Kultura Alkarteko aldizkari elektronikoa.

Eszelentzien Liburua Ama Birjinaren eszelentziak laudatzen dituan buruz ikasitako otoitz baten itzulpena da, ikertzailearen arabera. San Jose de Calasanz-en testuaren moldaketa bat argitaratu eban Bilboko Delmas argitaletxeak 1863. urtean

eta Euskal Herrian ospe handia hartu eban. Hori izan zan seguru asko, Ulpiano Uriarte nekazari zeauriztarrak itzuli ebana.

Rekalderen artikulua irudien bidezko edizino faksimila, transkripzio kritikoa, transkripzio gaurkotua, Ulpiano Uriarteren biografia, *Eszelentzien Liburua* itzulpenaren originala, originala eta itzulpenaren arteko konparaketa, idazkerea eta puntuazino zeinuak eta hizkuntza arloko zenbait ohar jasoten dauz. **8. eta 9. orrialdeak**



Juan Rekalde eta Sara Iturbe Añibarro-Dañonea baserrian.

ARTEA

Udalak kudeatuko dau kanposantua

Eleizak 30 urteko zesinoa egin deutso Udalari eta hemendik aurrera kanposantuaren kudeaketa Udalaren esku egongo da. Hori dala eta, Udalak tasak kobrauko ditu. Katolikoak ez diranak be lurperatu ahal izango dira Arteako kanposantuan, hitzarmenean agertzen dan klausula batek bermatzen dauan moduan. **5. orrialdea**



AREATZA

Iliada umeentzat salgai

Areatzako Eder Atxutegik "bihotz berezia" dauka eta Bostonen ebakuntza bat egiteko dirua batzeako gurasoak Homeroren *Iliada* umeentzat egokitua argitaratu dabe eta salgai ipini. Moldaketa Ederren amamak, Rosa Hernandezek, latin eta grekoko katedratikoak, egin dau. 14,95 euro balio dau liburuak eta liburudendetan, zein internet bidez erosi daiteke. **7. orrialdea**



E P A
Galdakao

www.epagaldakao.com

Matrikuletako epea, urtalia osoa.

Tlfn. 94 456 60 98

Helduen heziketa

E.P.A.
IGORRRE: Elejalde 22. Eleizako lokaletan

LEMOA

Espazioen erabilerearen diagnostikoa

Genero ikuspegitik espazioen egoerea, beharren identifikazinoa eta erabilerearen diagnostikoa egiteko, zita bi daukiez lemoaztarrak hamabostaldi honetan. Holan, hilaren 19an kaleen eta espazioen diagnostiko "ibiltaria" egingo dabe eta 29an behin-behineko txostenaren aurkezpena eta eztabaida egingo da Jubiladuen Etxeko goiko solairuan. **5. orrialdea**



IGITIE

**ORTUGINTZA ETA
FRUTUGINTZA
EKOLOGIKOA**

Jente askok lotzean ditu ekoizpen ekologikoa eta kalidade bajuko ekoizpena landaketen itxikeriagaz. Gure ustez, nekazaritza ekologikoa guztiz kontrakoa da. Kalidade altuko nekazaritza da, eta nekazariaren profesionaltasuna be altuagoa da.

Ekoizpen ekologikoak landaketearen orekea bilatzen dau. Helburu nagusia nekazal arloaren autogestinoa topetea da, kanpo hornidurak ahalik eta gehien murriztutea, eta zikloa bertan itxia.

Badago Europa mailan jardue-ra ekologikorako arautegi bat. Gure ustez arautegi honek bidea

egiten lagundu ahal deusku, baina ez da bide bakarra. Badagoz ekologikoa egin ez eta ekologikora asko hurbiltzen diran nekazariak eta alderantziz.

Ortugintza eta frutugintza norberaren elikadurarako izan daitezke edota aukera profesional bat. Gaur egun gure lurraldean konsumiduten dogunaren % 10 baino ez da hemen ekoizten. Konsumiduten doguzan barazki eta frutuak sano urrutetik datoz, jakinda askotan ez dagoala kontrolatzerik zelango ereduak ekoiztuak izan diran. Honek guztiak eragiten dituan osasun eta ingurumen arazoak etenbarik sufriduten doguz.

Beraz, bertan ortugintza eta frutugintza ekologikoa suspertzea aukera parebakoa da barazki eta frutu nutritiboak,

kalidadezkoak eta osasungarriak ekoiztu eta konsumiduteko, ingurumena babesteko, energia gastua murrizteko, bertoko espezieak errekuperetako... Azken finean ekonomikoki, sozialki eta ingurumenari jagokonez gure nekazaritza iraunkorragoa izan daiten.

Zorionez gure lurraldean baserritarrak zein konsumitzaileak arlo honetan gero eta kontzientzia handiagoa dabiz garatzen, honegaitik ortugintza eta frutugintza ekologikoa zertan dztan jakin gura dauanarentzat Dimako Udalak berbaldi bi antolatu ditu urtailaren 19 eta 26an, bertan ortuari eta frutu ekoizpena eredu ekologikoan garatzeko jakin beharreko lehen urratsak, araudia eta adibideak azalduko dira modu teoriko eta praktikoa bertoko baserritarren eskutik.



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Urtailaren 14tik 20ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara
Melero. Amorebieta-Etxano.

Urtailaren 21etik 27ra
Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara
Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Urtailaren 28tik zezeilaren 3ra
Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara
Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan
22:00etatik 09:00etara
Chicote. Kareaga Goikoa 50. Basauri.

Medikuak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 11
Areatza: 94 631 71 52
Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30
Igorre: 94 600 74 63
Lemoa: 94 631 31 16
Ubide: 945 45 03 61
Zeanuri: 94 673 91 49
Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 05
Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubide: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea
94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15
Gorbeialde
94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01
Parketxea
94 673 92 79
Igorreko Kultur Etxea
94 673 62 51
Gorbeialde Irratia
94 631 52 90
Trenak
Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265
Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo
Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.
Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.
Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.
Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.
Orduro: 05:45etik 21:45era.
Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri
Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.
Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo
Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengoa 22:15ean Galdakaoraino.
Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango
Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.
Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo
Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:
Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.
Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide
Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.
Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)
Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)
Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Bilbo
Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.
Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea
Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.
Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.
Zeberio-Bilbo
Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.
Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio
Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.
Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11
Bilbo-Gasteiz
Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan.
Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.
Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo
Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean.
Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.
Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

Babesleak:



Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.
Telefonoa: 94 631 73 14.
Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com
www.begitu.org
Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.
Kudeatzailea: Iñigo Iruarizaga.
Erredakzino taldea: Julen Bilbao, Ainhoa Duñabeitia, Clara Luja Azpiri eta Irati Urien.
Maketazinoa: Iñigo Iruarizaga.
Publizidadea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.
Banaketea: Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Alaia Ozerinjauregi eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).
Tiradea: 6.600 ale.
Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.600 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

ZEURE BERBEA

Areatzan Talleres Emen-en alboan 2012ko abuztuaren 26an gertatutako heriotze auto-istripuaren lekukoaren eskaerea

Joan zan 2012ko abuztuaren 26an, gaueko 22:05 inguruan, Bizkaiko Areatza-Villarroko herrian, Talleres Emen-en inguruan, Zea-nuri, (Bizkaia) norabidean, Arratia-no Jatetxea igaro eta gero, N-240 errepidean, txoke bat izan zan non zilar koloreko Opel Astra familiar bat kaltetua izan zan.

Esandako autoan Bizkaiko Zea-nuriko, bidaiari bi joiazan, ama eta 16 urteko neskatoa. Orain arte egindako ikerketearen ondorioak kontuan hartuta, badirudi, kanpoko aldetik barruraino sartutako zeozer izan zala autoari aurreko aldean kalteak egin eutsana, eskoiko atean, alde bereko leihoaren eta teilatuaren altueran hain zuzen be, neskatoa joian aldean.

Talka horren ondorioa neskatoren heriotzea izan zan, gertatu zan leku berean.

Ezbehar tamalgarri honen inguruabarrak argitzeko, txokearen lekukorik balego, telefono zenbaki honetara 648 901 807 deituz, sendiagaz harremanetan jarri dai-tezala eskatuten da.

Datu txikiren bat daukanari be konbitea luzatzen deusagu gugaz hartu-emonetan ipinteko, nahiz eta informazioa interes handikoa ez dala pentsau.

Era berean, laguntza handikoa izango litzateke txokearen lekuko zuzenak ez izan arren egun ho-rretan zeozer ikusi eben persona guztiak, kamioren bat kargea apur bat urtenda; edo erremolketik edo erdierremolketik kargea urtenda; edota zeozer eskegita edo jasota izango eban garabi itxurako ibil-gailuren bat; edo bolketedun ka-mioiak; edo errepide ertzean edo beraren zatiren bat hartuz aparkau-tako kamioiak edo makinaren bat; gauza edo tresna astunen bat bide ondoan itxita, Talleres Emen-en ondoko zelaia baino lehen dagoan txatarrei-pabiloiaren ondoan, zeinetan istripua izan zan, gugaz hartu-emonetan ipintea.

Osakidetzako erizainai, Aldundiko suhiltzaileai, eta bertaratu ziran Er-tzaintzako Hiri Segurtasuneko agen-teai, eta baita be gertatu zanaren lekukotasuna emon ebenai, lagun-du ebenai, eta deia emon ebenai, parte hartzera konbidatzen jakie.

Gertakarien aurreko edo osteko egunetan be aurrean esandako egoerak, edo antzekoak, ikusi badira, esan dagizuela eskatzen deusuegu.

Aldez aurretik, eskerrik asko zuen laguntzeagaitik.

OSKAR XABIER GOIKOETXEA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo beginu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Ukubil



Ukubila esku itxia da, hatz lodia beste atzamarren gainetik dala. Eskua era horretan ipinita, atzamarrak baturik, atzamar-koskorak erakusten dira (nudillos). Indarra eta kemena adierazoten da ukubila erakutsita. Arratian gehienbat ukubil edo ikubil (ukubíle, ikubíle, agoskatuta) esaten da; ukabil eta ekubil, barriz, askoz gitxiago erabilten dira. Euskera batuan ukabil da nagusitu dana. Esaldi jatorra: Ukubil lango izerdi tantakadak bota ebazan!

ERETXIA

Wert eta irakaskuntza lege barria



JON ALBIZBEASKOETXEA
Lemoako JB Eguzkitza Meabe ikastetxeko zuzendaria

Irakaskuntzan zoritxarrez ohi-tuta gagoz hezkuntza antola-tzeko legeak bata bestearen ondotik agertzeaz. Bat ezartzeko pausuak emoten diranerako, turnoko hurrengo politikoak beste bat ateratzen dabe. Azken 30 urteetan 11 lege ikusi do-guz hezkuntza munduan. Lege honeetako gehienak gainera, hezkuntza komunitadeko ki-deakaz adostu barik idazten dira. Danak dinoe guraso, irakasle, ikasle eta abarren onerako dira-la, baina inork ez dau eskatzen honeen eretxia normatibea al-datuteko. Ezegonkortasun hau karga gehigarria da berez nahiko beteta doan hezkuntzaren mo-txilan. Alkarte Autonomoan be ezagutu doguz antzeko aldake-tak. Nafarroaren kasuko kalami-dadeak kontetako, beste artikulua bat beharko litzateke.

Madriletik datorren azkenengo "okurrentziak" Wert ministroaren izena dauka eta abizenaz LOM-CE. Estadu mailan hezkuntza bardintasuna lortzeako alda-rrikapenagaz mozorrotuta, usain atzerakoi eta politika eskoitia-rraren bereizgarri guztiak dituan legea proposatu dau ministroak. Lar luzea litzateke arau barrien aldaketa guztiak azaltzea, beraz honeek dira laburbilduta eta ere-txiagaz komentauta:

- Kanpoko ebaluazioak ezar-tzen dira ebaluaketa jarraituaren orde. Ebaluaketa barriak egon-go dira Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. mailan eragin akademiko handiagaz gainera. Egun bateko frogaren emoitak urte osoko ba-lorazinoak baino pisu handiagoa izateak, erokeria izatetik aparte, azken urteotako aurrerapausuak zakarrontzira botaten ditu.

- Titulazinoak lortzeako zail-tasun gehiago DBH eta Batxi-lergoko bukaeran kanpoko az-

terketak ezarriz. Barriz astakeria bardina!

- Ikasleen banaketa goiztiarra, Lanbide Heziketara bideratzen dira arazoak dituan ikaslea 15 urtetik aurrera. Ni umea nintza-nean be "Artes y Oficios" deitu-takora joaten ziran ikasteko balio ei ez ebenak. Gainera ikasgaien antolaketan merkantilizazioak eta merkaduakanako menpeko-tasuna argi ikusten da.

- Familien parte hartzea txi-kiagotzen dau, Organo Gorenak ahalmena galtzean dau konsul-tarako erakundea bihurtuz. Bo-terea, eskolako komunitadeagaz kontau barik, administrazioak izentautako zuzendariari emon gura deusie.

- Estaduak hezkuntza edukiak zehazteko eskumena handitzen da autonomien kaltetan.

- Ikastetxeen proben emoitak publikoak egingo dira honela ran-king bat eginez, ikastetxeen eta bertako familien berezitasunak kontuan hartu barik. Ikastetxe pribaduen alde jokatzeko hel-buru argia dauka honek, bertako ikaslegoaren estratu soziala eta baldintza ekonomikoak abantaila emoten deuselako.

- Euskera oinarritzko irakasgaia izatetik espezialidadea izatera pasetan da, gaztelania ostera ez. Paradoja dan arren, EAEn azken urteotan zalantzan da-goan hizkuntza ereduari esker, antza danez honek ez dau era-gin handirik izango. Dana dala tristea da oraindino elebitasun edo eleaniztasunaren abantailak miseria politikoakaitik zalantzan jartzen ikustea.

Laburbiltzeko, lege propo-samen honek, aurreragokoak ekarritako hobekuntza adostu asko ezabatu gura ditu eta tran-sizinoko lehen urteetara garoaz. Hamaikatxo ikusteko jaiok gara-la dino esaerak, baina hau doze-nara be heltzean da.

BATZ
BATZ, S. KOOP.
Tomea suzua, 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharrea beharrez, euskeraz eginez

Euskerak Batzen gaitu

MONDRAGON
INDUSTRIAL CONTRACTS

LUMATUTEN



ARANTZA
ETXEBARRIA
ITURRATE

Buruko min
ekologikoak

Egunokaz irakurri dodan kontu baten inguruan gogoeta eragin gura dot. Batzuentzat kontu eza-guna da. Beste batzuk, barriz, inoz ez dabe honen inguruan ezer irakurri.

Gaiari helduko deusatz, bada. Gaur egun sano arduratuta gagoz ekologia dala eta. Dibersidadeari edo aniztasunari eutsi behar jako. Ezin dogu gure natura ondarea galdu. Ez dakit nongo oiha-nari egiten jakozan erasoak kezkatzen gaitu, eta poloe-tako izotza urtzeak be artega ipinten gaitu.

Bisoi europarra, ugatza, ar-bola-igela... galtzeako arriskuan dagozala entzuten dogunean larritu egiten gara eta prest gagoz proposatzen diran kanpainetan parte hartzeako

eta behar dan leku guztietan sinatzeko. Ni konforme nago. Zer edo zer egin beharra dago.

Baina hori guztiori gitxitan pentsetan dogu hizkuntzari lo-tuta. Munduan hizkuntzen di-bersidade edo aniztasun handia daukagu, eta horreek galtzea be ez ete da arduratzeako mo-dukoa?

Munduan 6.000 hizkuntzatik gora egiten dira berba eta 194 estadu inguru baino ez dagoz. Prebisinoai jaramon egin ezkeru, XXI. mendean 2.000 berbeta in-guru galdu egingo dira. Datu hori ez da guztiok zutunik ipinteko modukoa?

Dibersidadeari eustea ez da derrigorrezkoa arlo honetan be? Ez da neurririk hartu behar be-gien aurrean daukagun galereari aurre egiteko?

Baina, kontuz! Kontuan hartu behar dogu neurriok ez dirala gobernuetatik eta podere poli-tikoetatik bakarrik etorri behar. Kasu honetan, bakotzak badauka zer egin eta zer pentsau.

ZERTZEAN



ZEFE ZIARRUSTA

Aupa Sabin:
Zelan aspaldiko?

Hemetik, gaur eguzki zoragarripean, Gor-beialdea aurrez-aurre eta zuri dituela tontorrek ikus-miran higaz berbetan aritzeko gogotan. Hire kantuen melodiak, nire etxe aurretik igarotzen doken bideak berak legez, ilusioa jakartak gaurkoan, hemetik pasa-tzen hintzeneko aupadak halaxe.

Bajakiat, jakitun izango haizela betikoen azken marmarretaz... barrio "Florido pensil"egaz edo bikti-men inguruko jolas beragaz hor ari dituk betikoak... duela urte batzuk hasitako bidea errekeerre errauts kutsatuakaz pozoitzen, lausotzen, ez ikusiarena egin eta gure herriaren gurariak oztopatzen. Eskerrak hasitako bide barriak, oraindik negu atarian garen arren, kimuak pil-pil eta prest dituen betiko ame-tsetara zabaldu eta gure inguruak hosto berdez, lore kolorez janzteko. Bai, "Hitza eta erabakia herriari" egiten, sustraitzen joaken bideak aurrera darrai, hor-txe ikusten haut lehen lerroan, ostarteen zirrikitueta-tik eguzki izpien beroa gureganatzen.

Geure Arratiera etorrita, gauzak nahiko larri jatozak, alde batetik krisia larri joten jabik hainbat entrepre-

Sabin Intxaurregarari gutuna

satan, ohikoa bihurtzen ari dok beharginak erre-pide bazterrean euren lanpostuen defentsan ikustea, bestetik, ingurumenaren arloan be gure eskualde osoa harrapatzen jok fracking-a gauzatzeko saio bai-menak. Ez, gauzak etxatozak bare, ia egoeraz jabetu eta oraingoan ikasten juken arduratsuago izan eta erantzunkizunegaz aurre egiten gainera jatorkuen negu gorriari.

Hi, aurren, Ipinaburuko Jon eta Pui-ena marka izan dok gero!! Munduko gaztairik onena etxean! Eta zeaniztar erraztuko Arkaitzek Bizkaiko Bertso Txapela irabazteagaz be pozik egongo haz, eztok? Giro poli-te egon zoan Miribillan, gure hizkuntza eta kulturak etxok mezidu gitxiu!

Bañoak, baina eskuarten jekoaten liburuko olerki-txo baten hasiera eta amaiera eskeini gure joatazat: "Nire begiek/bizi dutelako isurtzen malkoak/nire belarriek/bizi dutelako entzuten hire taupadak/... ..eta sentimenduz busti, biluztu/izarren argipean".

Plazer bat izan dok une batez higanatzea, arra-zoiak jekuzek eta urte barri egunean gure Gorbaieko kurutzean etxoten doat, txakoline neure kontu, topa egiteko.

Ekin gogor eta eutsi goiari!! Mosu handi bet. Zeanurin, 2.012ko abenduaren 27an

* Testu honek irabazi eban Sabin Intxaurregarari gutu-nak lehiaketea Zeanurin.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran mo-duan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera erudian ipiniko.


Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkeru, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Aikomen, biodibersidadea jagoteko Igorreko Udalaren ahale-gin bi. Alde batetik, Igitiek Udalaren laguntzaz antolatutako basoen kudeaketearen gaineko jardunaldiak agertzen dira. Bestetik, Arantza Etxebarria Lumatuten-en dinoan moduan, hiz-kuntzen biodibersidadea manteniduteko euskera eskolak.

Keinu txikia da, jakina. Ingurumen kontuetan norbanakook egin daikeguzan keinuak txikiak dira danak. Horreek danak batzean sor-tuten da diferentzia.

Euskerea ikasi edota sakontzeko aukerak badira Arratian, baita basoak modu jasangarrian kudeatzen hasteko.





Loratzen Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Gorosti
LORAZAINTZA

Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com



Ortodontzia
Inplanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aideroa
Odontoloquo

Bidebarri 1, behea
48140 Igorre - Bizkaia
T. 94 631 50 39

Ruiz de Arana 100
R.P.S. 25/06



Graduazinoak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gitxitua
- Begiko tentsinoak
- Lentillen adaptazioa
- Kiroletarako betaurrekoak

Olaetxe
OPTICA ZENTRUA

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 olaetxeoptika@hotmail.es

ARTEA

Udalak kudeatuko dau herriko kanposantua

Erredakzinoa

Orain arte Eleizearen esku egon da Arteako hilerriaren kudeaketea, bai-na abenduan Eleizeak Udalari egin-dako zesinoa izenpetu zan. Honen aurretik, udal plenoak onartu eban zesinoa. Hilerri zerbitzua dala eta, Udalak tasak kobrauко ditu he-mendik aurrera eta zesino hitzar-menak 30 urteko luzapena dauka. Familien orain arteko eskubideak gordeko dira.

Legearen arabera, hilerri zerbit-zua udalak emon behar dau. "Ar-tean eleizeak egin dau hori bere esku egon dalako. Zerbitzua emon, emon egin da herrian. Eta eleizak zerbitzu hau emoten eban bitar-tean, ez eukan zentzurik Udalak beste zerbitzu paralelo bat eskein-tzea" azaldu deutso BEGITURI Alberto Etxebarria Arteako alkateak.

Dana dala, orain arte, eleizaren esku egon izanak ez dauala arazo-rik ekarri dino alkateak. Izan be, inoz inork ez dau hileta zerbitzu zibilik edo katolikoa ez dan beste erliji-norik eskatu Artean, alkatearen

esanetan. Baina hemendik aurrera Arteako kanposantuan katolikoak ez diranak be lurperatu ahal izango dira, hitzarmenean agertzen dan klausula batek bermatzen dauan moduan. Izan be, "Udal legeз, ezin dogu onartu zerbitzu publiko bat batzuentzat bakarrik izatea" dino Etxebarriak.

Tasak

Eleizeak doban itxi deutso kanpo-santua Udalari eta Arratiako Elei-zearen eretxian "herriak diru asko aurreztuko dau hitzarmen honeri esker, holan ez dauka udal lurrik eskeini behar hilerri zerbitzua herri-tarrai eskeintzeko ezta be instalazi-noak eraigiteko".

Beste kanposantu bat egitea as-koz karuago izango litzateken arren, orain artekoaren aldean dirua izan-go dala dino alkateak "Lur-emotea bakotxak berea ordaintzen dau, baina hango bedarra ebagi, garbita-suna, edozein konponketa... Udalak egin beharko dau hemendik au-rrera eta orain arte ez eban egiten. Gastua suposatuko dau".



Arteako kanposantua.

ARRATIA

Aurrekontuak ez diralako herritarrakaz landu abstenidu zan Bildu mankomunidadean

Erredakzinoa

Abenduaren 26an onartu zan Arratiako Udalen Mankomuni-tateko aurrekontua, EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta Bilduren abstenzinoagaz. Bilduk murrizke-tak eskatu zituan alegazinoetan eta "nahiz eta Bilduren alega-zinoen ostean, aurrekontuak murriztuak izan eta mankomu-nidadearen proiektu batzuekaz ados egon, udalen egoera eta eretxia kontuan ez izateagaitik eta partehartze eta gardentasun ezagaitik" jo eban Arratiako Bil-

duk abstentzinora, prentsa ohar bateз Bilbuk azaldu dauanaren arabera.

Aurrekontuak ez dirala herrita-rrakaz landu eta Bilduko taldeak be bere aportazinoak "alegazino bidez bakarrik" egin ahal izan dituala dinoe. "Eztabaida auke-rak oso urriak izan dira. Proiektu amankomunadua partidistea iza-tera heltzeraino".

Mankomunidadea osotuten daben herrien interesak babes-tea be eskatzen dabe eta kontra-tazinoetan "joera partidisteagaz" amaitutea.

LEMOA

Lemoako espazioen erabilerak aztertzen dabiz herritarrak

Erredakzinoa

Lemoan dagozan egoera eta beharren identifikazinoa gene-ro ikuspegitik egiteko, prozesu parte-hartzailea ipini dau mar-txan Udalak. Urrietan hasi zan eta martian bukatuko da, baina datorren hamabostaldian zita bi daukieз partaideak. Izan be, hi-laren 19an kaleen eta espazio-en diagnostiko "ibiltaria" egingo dabe eta 29an behin-behineko txostenaren aurkezpena eta ez-tabaidea. Prozesu honetan, Uda-leko ordezkari politiko, tekniko eta langileez gainera, herritar eta eragileak be parte-hartzean dabiz.

Prozesuak hiru fase daukaz, "Lehengo eta bigarren fasean, errealidadeagazko hurbilketea eta honen inguruko hausnar-ketea egin dogu. 29an egingo dogun bilereagaz, hirugarren fasean sartuko ginateke, hau da, eraldaketea planteetako fasean" azaldu deutso BEGITURI Idoia Legarretak, diagnostikoa egiten dabilen lan-talde teknikoko par-taideak. Prozesu hau martxan ipinteko hitzarmen bat sinatu eban udalak EHUGaz eta EHUKo Matxalen Legarretak eta Idoia Legarretak osotutako talde tek-nikoa dago diagnostikoa egiten. Udaleko langileak, ordezkari po-litikoak, gizarte eragileak eta he-rritarrak parte hartzeako proze-suan "hiru teknika erabili doguz: alkarrizketak, talde dinamika eta parte-hartzerako espazio ireki eta egonkorra" dino Idoia Lega-



Lemoa.

rretak.

Kaleen eta espazioen diag-nostiko ibiltaria

Kaleen eta espazioen diagnos-tiko "ibiltaria" herritar eta era-gileakaz abiatutako diagnostiko eta hausnarketa prozesu horren barruan kokatzen da. Helburu bi daukaz. Alde batetik, "herriko espazioen eraikuntzan generoak zelango eragina daukan aztertut-ea. Eta ez bakarrik zelan eraigi dan herria kontuan hartuta, baita zelan erabilten doguzan kaleak, zelango dinamika sortzean di-ran... Eta bestetik, egiten gabizen lanketea kaleratzea" dino talde teknikokoak.

Hilaren 29an eraldaketak plan-

teetako fasean sartuko da diag-nostikoa. "Lan-talde teknikokoak orain arte ikusitako guztia ren itzulpena egingo dogu eta etor-kizunerako erronkak planteetan hasiko gara, etorkizunean egingo diran esku-hartzeak adosten joa-teko".

Parte-hartzaileak

Partaideak modu bitan hartu daikie parte: modu puntualean edo prozesu osoan zehar. "Gure asmoa, alkarrizketa eta talde dinamiketan parte hartu daben guztiak, espazio egonkorrera batzea da. Espazio egonkorrean, bataz beste, 20-25 persona in-guruk hartu dabe parte modu jarraituan" dinoe.

BEDIA

Incoesako beharginak greba mugabakoan

Erredakzinoa

Incoesak beharginen ordezkariakaz hartutako akordioa bete ez dauala eta hilaren 17an greba mugabakoan hasiko dirala emon dau jakitera LAB sindikatuak.

Enpreseak berrantolaketa bat egin, eta16 behargin kaleratze-ko asmoa azaldu eban, baina "beharginen burrukeari esker" abenduaren 28an akordio bate-ra heldu ziran Incoesako zuzen-daritzа eta beharginen ordezkariak. "Akordio honen arabera, enpreseak hainbat konpromiso hartu zituan: kanporatzea hit-zartu ezin izan eben 9 langileak berronartu, 4 aurrejubilazino tra-

mitau, eta hitzarmen kolektiboa eta enpresearen bideragarrita-sunaz berba egiteko negoziазino prozesua barriz hasi. Beharginok gure aldetik, bertan behera itxi genduan greba mugabakoaren deialdia" dinoe beharginen or-dezkariak.

Baina Eusko Jaurlaritzan lan-gileen berronartze eta aurreju-bilazinoak egiteko kontziliazinoa izan baino ordu erdi lehenago, Incoesako zuzendaritzako Carlos Olavek, telefono dei baten bidez, desautorizaua izan zala esan eutsan LABeko ordezkariari.

"Beharginen aurkako aurreka-ririk bako eraso honek, datorren urtailaren 17an greba muga-

bakoa hastera behartzen gaitu. Incoesako zuzendaritzak hitzar-tutakoa bete daian" burrukan egiteko prest dagoз beharginak.

Enpleguaren defensasn

Incoesa Bedian dago eta trans-formadoreak egiten ditu. Sail desbardin eta independentee-tan 105 behargin ditu. "Greba hau egiten dogu zaharrenok, enpresa honetan lan egindako 35 urte baino gehiagoren os-tean, gure jubilazinoa defen-datzeko, eta gazteenak, hemen, Arratian, gure bizi proiektua do-gun eskualde honetan gure lan-postuak defendatzeko" dinoe langileen ordezkariak.

ARRATIA

Gabonetako beste irudiak

Erredakzinoa

Gabonak irudi interesgarri asko itxi deuskuez. Batzuk beste sasoi baten be ikusi eitekezanak dira, ekitaldi horreek ez dagoz-eta Gabonakaz lotuta sasoi horretan egindakoak izan arren. Jente asko batu zan, eta argazkiak doguz lekuko, Uribe auzoak irabazi eban Zeanuriko auzo arteko desafioan, Dimako desafioan, Dimako presoen aldeko ekitaldian, Galarza II-Mikel Goñi eta Otxandorena-Agirrereren Igorren jokotutako partiduan edota Txirri, Mirri eta Txiribitonon pailazoen agurreko ikuskizunean.



Zeanuriko auzo arteko desafioa.



Dimako desafioa.



Galarza VI, Goñi II eta Agirre.



Dimako presoen aldeko ekitaldia.



Txirri, Mirri eta Txiribiton.

Argazkia: Juan Lazkano.

LEMOA

Udalbatzak grabetan hasi da Udala

Erredakzinoa

Lemoako Udala aurten udalbatzak kameraz grabetan hasiko da gero www.lemoa.net webgunean zabaltzeko. "Ekimen honegaz udalbatzetako informazioa ahalik eta herritar gehienetara heltzea gura da eta Udala ahalik eta gardenena izatea" Udal iturrien arabera.

ARRATIA

Enpresa batzordeak manifestazinora deitu dabe

Erredakzinoa

Hilaren 18rako, arrastiko seiretan Cementos Lemonako akanpadatik abiatuta "Gure eskubide laboral eta sozialaren alde, enplegu suntsiketaren aurka" lelopean manifestazinora deitu dabe Arratiako hainbat enpresa batzordek. Enpresa batzorde deitzaileak Cementos Lemona, Incoesa, Tecnichapa, Ormazabal, Tarabusi, Negarra, Gea-Ibérica, Araluce, Alfus, Hierros Sancho, TMC, Aliasa eta Manufacturas Alfe dira.



Arratia, Ubide eta Zeberio euskerea eta kulturearen alde

Hamabostero Begitu zure etxean

begitu arratia ubide zeberio **10 urte.**

Egin zaitez zeu be Begitu-lagun

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkartek ateratako produktuak.
Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonia E-posta

Kontu korronteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:

35€ 55€ 75€

Moztu eta bidali helbide honetara:
Zertu Kultur Elkartea, Herriko plaza 24. 48142 Artea

DIMA

Zergak herritarren baliabide ekonomikoetara egokitu dauz Udalak

Erredakzinoa

Baliabide ekonomiko urriak di-tuen hainbatek IBI zergaren erdia pagauko dabe Diman. Neurri ho-negaz Udalak dimoztarrak bere bizilekuan jarraituteko aukerea bideratzea eta deserrotzea sai-hestea gura dau. Zerga murrizke-ta hau pensionistak, Lanbideko zerbitzuan erroldatutako langabe-tuak, 30 urte baino gazteagoak, adin txikiko seme-alabak dituen kide bakarreko sendiak, % 65 edo gehiagoko ezgaitasuna daukien elbarrituak eta sexu indarkeria jaso

daben biktimak eskatu ahal dabe. "Ez dakigu zenbat izan daite-kezan baldintza honeek betetzen dabezan dimoztarrak. Izan be, le-henengo aldia da hau egiten dana" dino Rafa Ugalde alkateak.

Zerga gehienetan % 5eko igoerea
Zerga gehienetan % 5eko igoerea aplikau dabe Diman. Autoetan ho-lan da, baina kamoien zerga ez da igon "badakigulako hori lanerako dana eta lan-arlo hori be makal dabilena" azaldu deutso BEGITURI alkateak.

IGORRE / LEMOA

Beharsarea.net erabilgarri

Erredakzinoa

Euskeraz egiten daben tabernari, dendari, ume zaintzaile eta bes-telako lanen eskaereari erantzut-eko 2011n beharsarea.net sortu zan Getxon. Beste 9 udalerrri eta mankomunidade 2 batu jakoz sareari, tartean Igorre eta Lemoa. "Beharsarea euskerazko lana bi-deratzeko interneteko ataria da, dobakoa eta euskeraz egiten dan

lana eskeini eta eskatzeko tresna errez eta eraginkorra. Erabiltzai-leak baldintza bi baino ez dabez bete behar: beharra euskeraz egitea eta lan baldintzak duinak izatea" sustatzaileen esanetan.
Lanak kategoriatan sailkatuta dagoz, baina lan mota guztiak bi-deratzeko balio dau Beharsareak. Lan partzialak zein lan profesio-nalak eskeini eta eskatu daitekez zerbitzu honen bidez.



ARRATIA

Gorbeialdek koordinatzailea behar dau

Erredakzinoa

Gorbeialde Landa Garapen Alkar-teak kudeaketa koordinatzailea

INCOESA

Tel. 94 631 32 75
Faxa. 94 631 37 66
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

DIMA

BFAko "erreskatea" ez dabe onartu

Erredakzinoa

BFAren dekretuen bitartez enpre-sa pribaduko zorrak kentzeako aukerea euki dau Dimak. Zor hori 600.000 euro ingurukoa da, eta BFAren laguntzea onartu ezker o 15 urterako beste mailegu baten bitartez finantziau ko zan. Udalak hori ez onartutea ebatzi dau. "Guk ikusi genduan ez zala egokia beste mailegu bat hartzea. Gainera, ikusi dogu urte t'erdian zorra 700.000 euro murriztu dogula, orduan ebatzi genduan, martxa horretan jarraitutea eta ez onartzea erres-katea" azaldu deutso BEGITURI Rafa Ugalde Dimako alkateak.
Dana dala, hurrengo sei hileko-an, enpresakaz dituen 140.000 euroko zorra kentzea ebatzi dabe hilean hilean diru-kopuru bat ordainduta.

BBKgaz akordioa
Abenduan onartutako 2013ko

aurrekontua zorrak baldintzatu-ta dago. Zor horretan, ordaindu bako fakturez gainera, hiru kreditu eta hiru diru-zaintza kontu dagoz. "Diru-zaintza kontu bi mailegu bihurtu doguz BBVA eta Caixagaz, hain zuzen be, baldintza bategaz: legealdi honetan kendu behar dirala. Eta hirugarren diru-zaintza kontua dala eta, BBKgaz akordio batera heldu gara, datorren urritik aurrera hasiko gara amortizetan"



Dima.

AREATZA

Iliada umeentzat

Erredakzinoa

Diez cuentos para Eder izenpean Homeroren *Iliadaren* adaptazio bat egin dau Rosa Hernandez latin eta grekoko katedratikoak, Eder Atxutegiren amamak. Gurasoak li-burua argitaratu eta salgai ipini dabe umearen kardiopat ia sendatu ahal dauan Bostonen egin beharreko ebakuntza pagetako. Liburu honen sei mila ale dagoz salgai Euskal Heri osoko liburutendetan, Elkar, Tintas edo El Corte Ingles-en barbarako, eta interneten bidez be erosi dai-teke, Amazon-en. www.diezcuentosparaeder.org webgunea be ipini dabe martxan eta Bihotzez, kardiopatia bat daukien umeen gurasoen alkarte a sortu dabe Areatzako 9 ur-teko Eder umearen gurasoak.
Dirua batzeako ekimen asko egin ditue gurasoak jente askoren lagun-tzeagaz. Holan, Areatzako Udalak egutegiagaz batutako dirua kausa honetarako da. Jaiak be ez dira fal-tau, batez be Bilbon. Urtailaren 4an, barbarako, Bilborock-en umeen-tzako jaia egon zan eta abenduan Campos antzokian gala bat egin zan. Bertan, Leioako Kameratak, Garbiñe Abendaño sopranoak, Igor Yebraren koreografia eskolakoak eta beste askok hartu eben parte. Horrezaz gainera, merkadu txikiak, tapoi eta eskuko telefonoak batzea eta beste ekimen asko dabiz egiten ebakun-tzaren 88.000 dolarrak batzeako.

"Anatomia diferentea"
Eder, bere amak dinoan moduan, "bihotz berezia" eta anatomia di-ferente bategaz jaio zan. Jaio eta hamazazpi egunetara lehenengo ebakuntza egin eutsien Gurutzetako Ospitalean eta bi urte eta erdigaz beste bat.
Bihotz eta biriki transplanteak emoten eban urtenbide bakarra. Pa-risen, sintomak arintzeko ebakuntza bat baino ez eben posible ikusten. Baina Bostonen beste urtenbide bat emon eutseen. Igaz ebakuntza bat egin eta orain bere eskoieko birikia funtzionetan hasi da. Aurten, biho-tzeko ebakuntzea egin gura deutsie kardiopat ia sendatzeko.
"Igaz aprilean egin eutsien ebakuntzea eta urtegarrenera egin gura dabe hango medikuak, baina guk udan egitea gura dogu, Ederrek kursoa amaituteko eta etxeko en errutinea hainbeste apurtu ez dai-ten. Baita eguraldi hobea egingo daualako eta dirua lortzeako den-pora gehiago eukiteko" dino Josune Berrueta Ederren amak.
Medikuak esandakoaren ara-bera eta dana ondo badoa, hile bi egon beharko dira Bostonen Areatzakoak.
Bihotzez
2011n Josune Berruetak Biho-tzez, Euskal Herriko kardiopatiadun umeen gurasoen alkarte a sortu eban. Alkarte a sortu ondoren kar-

diopat ia jardunaldietara joaten hasi zan Espainia osotik zehar. "Jardunaldietako baten, Madril en, Ederren kasua azaldu genduan eta esan euskuen estadiu ezin izan-go ebela askorik egin, eta Boston aitatu eben. Orduan, Gurutzetako kardiologoari itaundu neutsan ea bere ustez Bostonen lagundu ahal izango eben Eder eta, bere berbak inoz ez dodaz ahaztuko: "inork ezer egin ahal badau, hori Bostoneko Del Nido doktorea da" esan eustan. Arrasti haretan bertan ipini nintzan Bostoneko Ospitaleagaz kontaktuan eta urtenbide hau emon eusten".
Bihotzez alkartean 60 familia da-goz gurasoai lagunduteko. Alkarteak Deustuko unibersidadean jardunaldi batzuk antolatu zituan, eskola zuzen-dari, irakasle eta begiraleai zuzendu-ta eta urtero jai bat be antolatuten dau. "Orain, beste batzuen eskue-tan itxi dot, eta nire lana Bostonera joateko dirua lortzeako ahaleginean zentrau dot" dino Ederren amak.



Liburuaren azala.

ESKUIZKRIBUA

Eszelentzien liburua


2010eko martiaren 16an, Sara Iturbek bere berraitita zanaren eskuizkribu bat topau eban Arteako Goiko baserrian, *Libro de las eselencias del año 1902*. Ulpiano Uriarte zeanuriztarraren eskuizkribu hau, "Devocion de la corona de las doce estrellas de Maria Santísima para los ejercicios del mes de Mayo y Novena a su Corazón Santísimo e Inmaculado" otoitzaren itzulpena da.

Erredakzinoa

Juan Rekaldek eskuizkribu honen argitalpen kritikoa eta argibideak egin dauz eta Euskalinguan, Mendebalde Alkarteko aldizkari elektronikoan argitaratuko dau artikulua. Rekalde Arratia Institutuko euskera irakaslea izateaz gainera, *Arratia Inguruko Hiztegiaren* egilea eta "Geure Berba-

tegie" proiektuaren sortzailea be bada, Angel Larreagaz batera. Buruz ikasitako erderazko testu baten itzulpena dala Eszelentzien Liburua da Rekalderen hipotesia. "Formazino kultu handirik ez daukan itzultzaile batek gaztelaniatik egindako itzulpen bat da Eszelentzien Liburua. Horregaitik ez dauka, Bizkaiko literaturaren historian gertatu

ez bezala, ezelango konplejurik espainolezko lexikoa erabilteko orduan. Testuko lexikoan bada testu originaleko kultismoren bat, egia da. Baina jatorri kultua daukien berben ondoan zabalzabal eginda dagoz testu osoan zehar herri mailan erabilten diran gaztelaniazko berbak" dino irakasleak. Sasoi haretan garbizaleak zi-



Liburuaren azala.

Instalazio industrialak · Mantenimentu industrialak · Tresneria eta kontrola Merkataritza
estlabezimenduen instalazioak · Etxebizitzan erreformak edo berrikuntzak · Antena instalazioak
Mantenimendua · TDT · Telekomunikazioak · Herriko argiak · Potentziadun koadroak



Arratian kultura bultzatzen

indar
instalazio elektrikoak

Bildosola industria gunea, pab. E-3/4 · 48.142 Artea (Bizkaia)
Tel.: 94 655 47 19 · Fax-a: 94 404 06 70 · E-posta: indarsl@indarsl.es

ran nagusi eta honek ez dauka hareen eraginik. Lexiko erlijioso kultua darabil Uriartek Arratiako berbeteagaz nahastuta.

Eszelentzien Liburua testu erlijiosoa da. Ama Birjinaren eszelentziak dira. Maiatzean Ama Birjinari lorak eta errezuak egiten jakozan. "San Jose de Calasanz-en testuaren moldaketa bat argitaratu eban Delmas argitaletxeak 1863. urtean eta Euskal Herrian ospe handia hartu eban, gaztelaniaz" dino irakasleak. Hori izan zan seguru asko zeanuriztarrak euskeratu ebana.

Ulpiano Uriarte ez zan eleiz gizona. "Sasoi haretan euskeraz idazten eben guztiak eleiz gizonak ziran. Alde horretatik be baliotsua da eskuizkribu hau" dino Rekaldek.

Rekalderen artikulua irudien bidezko edizino faksimila, transkripzio kritikoa, transkripzio gaurkotua, Ulpiano Uriarteren biografia, *Eszelentzien Liburua* itzulpenaren originala, originala eta itzulpenaren arteko konparaketea, idazkerea eta puntuazino zeinuak eta hizkuntza arloko zenbait ohar jasoten dauz bere 50 orrialdeetan.

Egurrezko maletan

Sara Iturbek, Ulpianoren semea-



Juan Rekalde eta Sara Iturbe.

Sasoi haretan

garbizaleak ziran nagusi

eta eskuizkribu honek ez

dauka hareen eraginik

ren ilobak topau eban eskuizkribua baserriko kamaran egoan egurrezko maleta baten, Arteako Goiko baserrian. Ulpiano Uriarte Zeanuriko Uribe auzoan, Añibarro-Dañonea baserrian jaio zan 1853 urtean. Bere aita Prudencio de Uriarte Aguirre-Leceaga izan zan eta ama Josefa Antonia de Zuloaga y Lapatza. Hiru anaia izan ziran: zaharrena Pedro, bigarrena Justo eta gazteena Ramon Ulpiano.

"Adrian zan nire aitita, Ulpiano-ren semea eta Adrianen alabea da gure ama. Ama eta, zortzi neba-arreba izan ziran, gure ama Margarita Uriarte Uriarte da, Uribe auzoko Añibarro-Dañonea baserrian jaio zana. Han, zortzi seme-alabetatik sei jaio ziran. Gero Artean erosi eben baserria" azaldu deutso BEGITUri Sara Iturbek.

"Arteako baserriko kamaran baegoan egurrezko maleta bat eta behin garbiketari nebilela, besteetan legez, zabaldu neban. Oraingoan, baina, barrukoa begiratu neban eta han lehenagoko liburuak eta hareen artean, kuadernotxo hau agertu zan. Etxeko danok euki genduan koadernotxo eskuetan eta hasi ginan esaten nor ete zan gure berraitita hain ondo idazteko. Eta ez dogu atera nondik ekian idazten horren letra politagaz, ze papel guztietan *labrador* moduan agertzen da" dino Iturbek.

Ramon Ulpiano, Ulpiano izenez sinatzen ebana, Maria de Orbe-zua y Madariagagaz ezkondu zan 1889 urtean eta seme-alaba bi izan zituen: Adrian eta Regina.

Ulpiano, fede handiko gizona zan, adorazio taldean sartuta egoan eta gauetako errezoak egiten zituan. Hori dala eta, Espainiatik hainbat biaje egin zituan.

Lexiko erlijiosoa Arratiako euskereagaz

Rekaldek Ulpiano Uriarteren testuaren hizkuntza mailako ezau-garriak erreparatu deutse batez be bere ikerketan, eta bestela izan ezin zanez, Arratiako berbetea jasota dago Eszelentzien Liburuan. Eleizearen tradizioa nabaria da eta Pedro Añibarro sermoilari arratiarraren eraginik ea daukan testuak be aztertu dau Rekaldek. "Ulpiano Uriarte, beharbada, agozko tradizio kulto-erlijioso sendo baten jabea dateke: eleizaren bidez, belarritz ikasitako hizkuntza kultuaren eredu ondo ikasia" on-dorioztatu dau Rekaldek.

Arratiako berbeteari erreparatu deutso Rekaldek ikerketa honetan eta bere ustez, azpimarratzekoa be bada "gaur eguneko jardura arruntatik galdutzat jo leiteken nor-nork iragana hemen era egoki-egokian darabilela. Hutsik egin barik. Nor-nork sailekoetan, gaur egun iraganaren ordeztu nor-nork iragana erabilten da. Hau da, zinduzan barik, eutsun esaten da". Holan, Arratiako berbetearen diakronia bat egiteko be baliagarria izan daiteke Uriarteren testua.

Artikulu Euskalinguan ateratzekoa da baina "udaletxeak edo argitaratu gura badabe, ikerketea eginda dago".

www.begitu.org

publizidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115



Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com



AIZKOREA

Atutxa Ila eta Mugertza Ila galtzaile Deban

Erredakzinoa

Eusko Label Binakako Aizkora Txapleketea abian da eta Aitzol Atuxa dimoztarrak parte hartzean dau Mugertza II.gaz batera. Lehenengo neurketea Deban izan eban bikoak, urtailaren 5ean, eta galdu egin eben Nazabal eta Zubiagaren kontra. Eusko Label txapelketearen finala Azpeitian jokatu da martiaren 3an.

Talde bi dagoz txapelketako Urrezko mailan, eta dimoztarra A taldean dago. Hiru biko dagoz talde bakotxean. Deban, egin beharreko sei lanak egiteko, 22 minutu eta 30 segundo behar izan zituen Atutxak eta Mugertzak. Nazabalek eta Zubiagak, barriz, 21 minutu eta 20 segundotan gelditu eben erlojua. Hori dala eta, Nazabalek eta Zubiagak 2 puntu lortu zituen eta Atutxak eta Mugertzak 1.

A taldeko irabazlea Nazabal eta Zubiagak osotuten daben biko da, beraz. Ze, Lopez Azpilikueta eta Senosiainen kontra be irabazi eben abenduaren

30ean.

Hilaren 20an jokatu da Munitibarren taldeko bigarren izateko neurketea Atutxa II-Mugertza II eta Lopez Azpilikueta-Senosiainen artean.

Irabazlea finalerdietara

Lehenengo finalerdian, A taldeko irabazlea, B taldeko bigarrenagaz lehiatu da eta, bigarrenean, A taldeko bigarrena B taldeko irabazleagaz. Munitibarrekoa erabakiorra izango da, beraz, finaleira heltzeako aukerak izateko.



Aitzol Atutxa.

ZIKLO-KROSA

Julen Zubero Espainiako Txapelketako top 10-ean

Hiru euskaldunek osotu eben podium-a urtailaren

13an Asturiasen izan zan

Espainiako Ziklo-kros

Txapelketan.

Julen Bilbao

Aitor Hernandezek, Euskadiko txapeldunak, Espainiako txapela jantzi eban, 17 segundo aterata bigarrenari, Egoitz Murgoitiori. Edozelan be, Hernandez eta Murgoitio ez ziran bizkaitar bakarrak izan Naviako ziklo-kroseko top 10-ean; bada, hor sartu zan baita be Julen Zubero, Arratiako ordezkariarik nabarmenena proba honetan. Aurreko eguneko euriak gogortutako zirkuitoak ez ebazan gure kirolariak kikildu, eta lemoaztarraren 10. postuari gehitu jakon Erlantz Uriarte igorretarrak egin eban 16.a. Denporaldi amaiera begibistan

dagoala, itzel dabiz egiten gu-reak, eta akaso sorpresaren bat emongo deuskue Bizkaiko Txapelketan, hilaren 19an Berrizen.

Espainiako Txapelketako lehenengo jardunaldian, zapatuan, eguraldiak bere arpegirik latzena eskeini eutsen txirindulari helduenai. Izan be, euria, txingorra



Julen Zubero.

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea

Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana

Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111


FOTOKOPIAK - PAPERDENDA

L. Agirre, 7.
48180 Igorre (Bizkaia) Tfnoa: 94 628 64 78


AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK

Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA


ARRATIA AUTOESKOLA
Ikaslea euskaraz zain ordenez

Aginte Lehendakaria 11 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 56 31 Faxa 94 673 70 83
E-posta: uraburu@euskalnet.net

NAIARA Hartz Klinika

Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

Los Chopos
neurritza egindako armairuak

Arda, Los Chopos, 35 (Nagut) Tel.: 94 430 40 94

Esposizinoa eta
fabrikea Lemoan

Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

* KIRRU * ILEAPANDEGIA
SOLARIUM

Roberto eta Rosana

Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
☎ 94 631 92 00

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATEA

Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak



Juan de Ajuriagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115


Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO


axular
kultur elkartea

Aginte Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularte@gmail.com

indar
instalazio elektrikoak



Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
t. 94 655 47 19
indars@indars.es • www.indars.es

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Emilio Galtia banatzaile ofiziala


San Miguel

Ardoak Edariak

94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabeloia (Igorre)

AHOLKULARITZA:
LIGEE-LAN ARLOAN ✓


ZUZENBIDE

ZERGA ETA DERU KONSTUKTAN ✓
ONDASUN HIGIEZKINEN
ASIGURUKETAN ✓

Sabino Arana, 5-Tfnoa: 94 673 71 41 - Faxa: 94 673 04 01 - 48140 IGORRE

Jose Luis
Corbacho


pintura lanak

Sabino Arana, 3. 3a ☎ 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia ☎ 609-79-40-54


ekin s.l.
CONSTRUCCIONES

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTU SAREAK
BASERIK ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

Iturritx barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: obras@construccioneseakin.com


Pinturas Arratia

Javi Morato

Tel. 628 443 992

ERRUGBIA

Urte hasikera txarra

Ainhoa Duñabeitia

Ezkerreko hankeagaz hasi dabe zekorrak urtea. 2013an jokatu-tako lehen partiduan porrot egin eben, laugarren postuan dagoan Getxo B taldearen aurka eta. Denporaldiko laugarren parti-dua jokatu zan urtailaren 5ean Igorreko San Txisme errugbi zelaian. Eguraldia eta giroa alde euki eben arratiarrak baina ezin izan eben norgehiagokea aurre-ra atera. Markagailua kanpokoak es-treinau eben drop bat eginez. Entseguak ondoren etorri zi-ran. Ia-ia bardinduta egon ziran markagailuan partiduko 80 mi-nututan. Azken minutuak tensi-nos betetakoak izan ziran, baina azkenean getxozarrak eroan eben garaipena etxera. 11-16 izan zan azken emoitzea. Urtailaren 12an be ezin izan eben garaipena etxera ekarri. Iru-

ña RC taldea izan eben aurkari zekorrak. Iruñako Arazurin joka-tu zan norgehiagokea arrastiko 16:00etan. Itzelezko errepasoa emon eutseen nafarrak bizkaita-rrai; 53-7 hain zuzen be. Entse-gu bat egiteko aukerea baino ez eben euki gureak. Arratiako Zekorrak taldeko asko lesionauta dagoz eta joka-lariz juxtu antzean dabiz aspaldi honetan.



Zekortxuak Igorreko San Txisme zelaian.

Hurrengo partidua etxean jokatuko dabe, Iruña RCren aurka. Eguna eta ordua oraindi-no jakiteko dagoz.

Gazteak hobeto
Bestalde, zekortxuak bizkortu egin dira, astegoiien honetan. Ur-tailaren 12an etxean jokaturako partidua irabazi eben Zaisa Irun errugbi taldearen aurka. Partidua zerkortxuena izan zan, epaileak lehen txistua jo eta segiduan egin ziran partidua jabe. Ez eutseen itxi irundarrai entsegu bat bera be egiten. 39-0 izan zan norgehiagokako azken emoitzea.

MENDIA

Txikon Laila Peak (6.096m) igoten saiatuko da



Alex Txikon.

Erredakzinoa

Hilaren 18an abiatuko da Txikon Karakorum-era Laila Peak men-diaren tontorra zapaltzeko as-moz. Espedizino honetan, Txiko-negaz batera Sebastian Alvaro, Juanjo San Sebastian, Ramon

Portilla eta Jose Manuel Fernan-dez izango dira. Lemoaztarrak prensaurreko baten aurkeztu eban espedizi-noa eta sano motibauta dagoala esan eban "neguko espedizino bat amaitu" gura daualako. Izan be, aurreko saio biak bertan be-hera itxi behar izan zituan. Espedizino kide izango dan Sebastian Alvaro be egon zan Azkue Fundazinoaren egoitzan emondako prensaurrekoan. Al-varo TVEko *Al filo de lo im-po-sible* saioaren zuzendaria izan zan "60 urte betetea, bizitzea mugatua dala konturatuten gara, denporea urria dala. Orduan, denporea benetan ardura jaku-zan gauzetan eta bihotz oneko personakaz erabiltea ebazten dogu" esan eban parte har-tzeako bere arrazoiak emoten. Txikonek bere webgune ba-rria be aurkeztu eban pensau-rrekoan, www.alextxikon.com. Hemen, proiektuen gaineko in-formazinoa eta ikus-entzunezko edukiak egongo dira ikusgai.

FUTBOLA

Urtea txarto hasi dabe futbol talde arratiarrak

Clara Luja Azpiri

Andrazkoen Euskal Ligan dagoan Arratia taldeak hiru eta bi galdu eban hamahirugarren jardunaldian. Partidua Bilboko Ibarsusi zelaian jokatu zan, urtailaren 13an, eguer-diko hamabi eta erdietan. Azken aurreko partidua bardindu eben arratiarrak, bina, Beasain taldearen kontra Urbieta zelaian. Azken jardunaldi horren ostean Arratia taldea sailkapenaren seigarren postuan dago. Hurrengo partidua Irunen izango da, hilaren hemeretzian,

Ugalde Ventas zelaian arrastiko hiru t'erdietan, Mariño taldearen kontra.

Gizonak be galdu
Lurraldeko lehenetasunezko mailan jarduten dauan Arratia taldeak, bere



Arratia Futbol Taldea.

aldetik, bi eta bat galdu eban azken partidua, Trapagaran A taldearen kontra. Trapagaraneko Errotarte ze-laian jokatu zan partidu hau urtaila-ren 12an, zapatuan. Azken aurreko partidua, Urbieta zelaian Galdakao A taldearen kontra izan zana be galdu egin eben, bi eta hiru. Hurrengo parti-dua urtailaren 19an izango da, Urdu-liz taldearen kontra, hango Iparalde zelaian. Arratia taldea, hamazazpiga-rren jardunaldiaren ostean, sailkape-neko hamabigarren postuan dago.

FUTBOLA

Dimako Luis Prieto Lagun Taldea eta Areatzako Gorbeako Gurutzea Peña Valladolidera

Erredakzinoa

Luis Prieto Lagun Taldea eta Gorbeako Gurutzea Peñako baz-kideak Valladolidera urtekerea egiteko asmoa erakutsi dabe, Valladoliden kontrako partidua zezeilaren 2 edo 3an jokaturen bada. Prieto Lagun taldeko baz-

kideak Dimako Herriko Tabernan eta Igorreko Gau Loran emon ahal dabe izena hilaren 27ra arte. Bide batez, Luis Prieto Lagun taldeko zuzendaritzeak adierazo gura dau, "Lagun taldeak aurrera jarraituteko asmoa daukala nahiz eta Luis Prietok futbol profesio-nala itxi dauan".

Oparitu BEGITU-lagun!

Egizu zure laguna BEGITUREN harpidedun * Deitu 649 979 115 telefonora eta otzara bete kultura oparituko deutzazu.

- 6 liburu: Arratia Inguruko Hiztegia, Ortozik, Ametz, Peru Tximaluze, Haizea aurpegian eta Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak.
- Arratia, Ubide eta Zeberiko argazki zaharren postal bildumea
- Luis Iruarizaga Abesbatzaren 25. urtemugako CDa

HAU DANAU JASOKO DAU BEGITU-LAGUN BARRIAK OPARI DOTORE HAU EGIN EZKERO

35€, 55€
edo 75
Euroren truke

ZIENTZIA

"Ikerkuntza mundu polita da baina gitxi balorauta dago"

Oraindino Arratia Institutuko ikasle zirala Iera Amuriza eta Maialen Gonzalez Errioxako ikerketa biomedikoen zentroan egon ziran praktikak egiten. Iera, Maria Iñiguez ikertzailearen esanetara, giza-genoma ikertzen dauan sailean egon zan. Maialen, barriz, Patricia Perezen ikerketak ikusten, GIB (Giza Immuno-eskasiaren Birusa) daukien zelulak hazi eta tratamentu bila dabilen departamentuan.

Erredakzinoa

Orain unibersidadean dagoz ikasle honeek: Iera Amuriza Gasteizen Farmazia ikasten eta Maialen Gonzalez Donostian kriminologia ikasketak egiten. "GIBaren inguruko ikerketak ez daukie zerikusi handirik egiten nabilen ikasketakaz, baina beste bide bat zabalik eukitea ez dago txarto. Nire lehenengo asmoa erizaintza ikastea zan eta etorkizunak zer ekarriko dauan ez dakigu" dino Maialen Gonzalezek. Izan be, Ana Begoña Sancho Arratiako Institutuko zientzia irakasleak dinonaren arabera, ikasle honeek unibersidadeko ikasketen bigarren kursoan auke-rea izango dabe barriro be zen- tro honetan praktikak egiteko.

GIBdunen bizi kalidadea hobetzen

Errioxako zentro biomediko ho- nek eta batez be ikerketa sailak hartu-emon handiak daukaz San Pedro ospitaleko gaixoakaz. Hemen ikerketa talde bat dago gaixotasun honen azpian dago- zan molekulen eta geneen me- kanismoak aztertuteko. Holan, GIBdun pazienteen lipodistrofia eta beste aldaketa metabolikoen tratamentu edota prebentzino- rako ikerketak egiten dabez. "RNAgaz egiten dabe behar, zelulak hazi, tratamentu bat ipini eta ikusi ea zelulak tratamentu horrer i erreakzinoa egiten deus- tien" azaldu deutso BEGUTURI Maialen Gonzalezek. Esperientzia aberasgarria izan arren, Gonzalezek ez daki

ikerkuntzara dedikauko ete dan "sano mundu polita da, baina gitxi balorauta dago. Eta pres- takuntza handia behar da" dino. **Giza genomea ezagutzen** Giza genomearen ezagutzak, neurrira egindako botikak sor- tzeako genomn sorrerak, ga- rapena eta funtzionamentuaren ikerketak goieneko momentua bizi dabe aspaldion. Proiekturik ezagunena Giza Genoma Proie- ktua da eta interneten unibersa- lizazinoari esker ikertzaileak edo- zein izaki bizidunaren genoma sekuentzia osoa zehaztu daikie. "Ni giza genoma ikertzen egon nintzan. Geneetan ea mutazino- rik egoan ikusten eta epetekotan zein genetan. Sano esperientzia polita izan da. Han egiten daben

lana garrantzia handikoa da" dino Iera Amurizak. Amuriza farmazia ikasten dago eta bere ikasketakaz zuzenean lo- tuta dago sail hau. Izan be, sail ho- nen ikerketa proiektuak Farmain- dustriaren diru laguntzea daukie. "Gobernuak ez dabe ikerketerako nahiko dirurik emoten eta enpre- sa pribaduak diruz lagunduten da- bez ikerketa proiektuok" kejatzen da Iera Amuriza. **Zientzia bultzatu beharra** Zientzia eta Teknologia- ra jotn daben ikasleak gero eta gitxiago dirala dino Ana Begoña Sancho

zientzia irakasleak "Gazteak ez dira animetan esaten dabelako oso gatxa dala, baina nik uste dot oso mundu zabala dala hau eta garrantzia handikoa etorkizu- nerako". Hori dala eta, irakasleak emon eutsen ikasleai praktika honeen barri eta ikasleak zentro honetara eroaten dauz ikerketa mundua ezagutu dagien. Gai- nera, Areatza Kultur Kirol Batzor- deagaz alkarlanean dabil zientzia bultzatzeko ahaleginak egiten. Batzorde honek Aitor Bergara Fi- sika Doktorea ekarri eban aben- duan "E=mc²" Einsteinen ingu- ruko berbaldi didaktikoa emoten.



Maialen Gonzalez eta Iera Amuriza.

IKASTAROAK

Ikasteko aukera barriak urte barrian

Erredakzinoa

Udal ikastaroen programazinoa ikasturtera begira egiten bada be, badagoz ikastaro batzuk urte osoa hartzean ez dabenak, eta hileon edo hurrengo hileetan hasiko diranak. Holan, Lemoako Udalak hiru ikastaro eskeintzen ditu: Sukaldaritza sakontzen, Photoshop eta Zoru pelbikoa indartzea. Bediak Risoterapia, De- fentsa personala, Patinajea eta Elikagai manipulatzailea. Igorren, be aukerea dago hainbat ikas- taro egiteko urtailetik martira. Areatzan biojantza, eta Zeanurin sabel jantza eta Diman bizikleta tailerra, beste batzuen artean. Gustu guztiak asebetetzeko mo- duko aukerea, duda barik.

Aukera zabala Igorren Gazteentzako laburmetraje ikas- taroa doban da eta Literatur txokoa doban daukie Lasarte Aretoko bazkideak. Beste ikas- taroen prezioak 30 eurotik 105

bitartera doaz eta bazkideak % 15a gitxiago ordainduko dabe. Tai Chi, Jantza afrikarrak, Litera- tura txokoa, Akrobazia aereoak umeentzat, Gazteentzako la- burmetraje ikastaroa, Prozesu sortzaile plastikoak, Zeramika, Argazkigintza eta Photoshop egin daitekez Igorren urtailetik aurrera. Argazkigintzan maila biko ikas- taroak eskeintzen ditu Udalak: hasikera maila eta sakontzen. Umeentzako akrobazia aereoak ikastaroan be, talde bi dagoz; ba- tek eskolak martitzenetan izango ditu eta besteak eguenetan. Pro- zesu sortzaile plastikoen bigarren taldea, barriz, hilaren 12an hasi zan. Lehenengo taldearen lanen erakusketea Igorreko Erakusketa Aretuan dago ikusgai zezeilaren 2ra arte.

Bedian martian hasiko dira ikastarook Lau ikastaro eskeintzen ditu Be- diako Udalak baina honeek egi-

teko apur bat etxon beharko da, martian hasiko dira eta. Prezioak 15 eta 100 euro bitartean dagoz. Risoterapia ikastaroa martiaren 4tik maiatzaren 27ra arte izan- go da astelehenetan 19:30etik 20:30era eskoletan. Defensa personala be eskoletan izango da eguaztenetan 19:00eta- tik 20:00etara, martiaren 6tik maiatzaren 29ra. Rollers patina- jea, martiaren 2tik maiatzaren 25era, zapatuetan izango da frontoian. Azkenik, Elikagai ma- nipulatzaile ikastaroak zapatu bi hartuko ditu, martiaren 16a eta 23a, hain zuzen be eta liburute- gian izango da.

Sukaldaritza sakontzen eta Photoshop Lemoan Lemoan, Sukaldaritza sako- ntzen eta Photoshop ikastaroak zezeiletik aprilera egiteko auke- rea egongo da eta izena emo- teko epea hilaren 18ra arte da. Prezioak 30 euro eta 80 euro bitartean dagoz.

Sukaldaritza ikastaroa egue- netan izango da 19:00etatik 22:00etara eskolako jantokiko sukaldean. Photoshop, marti- tzenetan 19:00etatik 21:30era Jubiladuen Etxean. Zoru pelbikoa indartzeko ikas- taroa, martian hasi eta maia- tzean amaituko da. Hau kirol- degian izango da astelehenetan 19:00etatik 20:30era eta izena zezeilaren 4tik 15era emon dai- teke. **Diman Eskulanak eta Pilates** Urtailean hasi dira Eskulanak, Pila- tes eta Yoga ikastaro barriak Diman, baina lekua badagoala eta jentea apuntau daitekela oraindino emon dabe jakitera Udal iturriak. Eskulan ikastaroa martitzenetan izaten da goizez. Pilates, barriz, astelehen eta egueztenetan 19:00etatik 20:00etara eta Yoga eguenetan goizeko 10:45etik 11:30era. Urtilaren 19an eta 26an, frutuarbolen inausketea eta elikadura tailerra izango da. Gai honeen alde teorikoa 19an eta praktikoa 26an landuko dira. Hilaren 26an be, Cicloffici- na, bizikleta tailerra goizeko 10:00etan hasi eta gaueko

21:00etan amaituko da. Goizean bizikletearen mantenimentua eta arrastian tailerra izango dira. **Biojantza Areatzan eta sabel jantza Zeanurin** Aurreko biojantza ikastaroan par- te hartu eben andrak hala eska- tuta, beste ikastaro bat antolatu dabe Areatzan urtailetik aprilera arte. Udaleko bardintasun arloak diruz lagundu dau eta marti- tzenetan izango da 18:30etik 20:30era. Zeanurin urtailaren 9an hasi zan sabel jantza ikastaroa Kultur Etxean. Eguaztenetan izaten da ikastaro hau.



Biojantza.

MUSIKEA

Maite Idirin zeberioztarrak diskoa kaleratu dau

Erredakzinoa

Aspaldian Iparraldean bizi dan Zeberioko sopranoak hamasei Gabon kanta jasoten dituan diskoa kaleratu dau. Sopranoari, Muriel Dupin harpa-jotzaileak eta Maryse Gracietek flautea joten, lagunduten deutsie. AusArt Records disketxeak argitaratu dau eta orain zortzi urte Hendaian emondako kontzertu bat jasoten dau diskoak. Bizkaie!-k informau daunaren

arabera, Idirinek Aita Donostiak batu eta harmonizautako XVII. eta XX. mendeen arteko zortzi kanta abesten dauz *Gabon Kantak* diskoan. Batutako abestien artean dagoz Joanes Etxeberri Ziburukoak idatzitako "Oi Eguberri gaua", Bernardo Gazteluzarren "Kanta zagun guziek", Peñafloridako Konteak egindako "Irten ezazu", eta Jose Mari Usandizagak sortutako "Hiru Errege Orientekoak" eta "Horra Mari Domingi", beste batzuen artean.



Maite Idirin.

MUSIKEA

Exaixu-k egin dau Kalera Rock jaialdiko kantea

Irati Urien

Arratiako Exaixu taldeak egin dau aurtengo Kalera Rock jaialdiko kantea. Bigarren edizino hau datorren hilaren 23an izango da, Durangon. "Borrokalari kale-

ra" abestian oinarrituta Arratiako gazteak zabalduko dabe jaialdia. Taldeko Illart Gumuzioren esanetan "Gure Exkixun toke bat emon gura izan deutsagu alboka eta trikitixa doinuakaz nahastuta". Presoen aldeko jaialdi honetan tal-

de honeexekaz gozatu ahal izango da: Betagarri, Arkada Social, Kop, lheskide, Hesian, Kaotiko, Gozategi, Vendetta, Governors, DJ Bull eta Bad Sound System. Joateko asmoa daukienak, sarrerea lgorren bertan erosi daikie, 14 eurotan.

BERTSOLARITZEA

Onenak ezin hobeto Zeanurin

Erredakzinoa

Igor Elortzak, Amets Arzallusek, Andoni Egañak, Jon Maiak, Unai Iturriagak eta Arkaitz Estiballesek sano saio polita eskeini eben urtailaren 13an Zeanurin. Urtero lez, Arratiako Bertso Eskoleak maila goreneko bertsolariak ekarri zituan Zeanuriko frontoira eta entzuleak bertsolarien etoria eta umoreagaz disfratau eben. Jabi Olibares ibili zan gai-jartzaile lanetan. Aurreko eguneko manifestazinoa, etxe kaleratzeak, pensino urriak, zahartzaroa eta Hugo Chavezen osasun egoerea izan ziran bertsolariak tratau zituen gai batzuk.

Bertso saio honetan "klasiko" bihurtu diran sailak be egon ziran: Zeanuriko berbak erabili beharra eta segidillak. Arkaitz Estiballesek

asmatu behar izan eban besteak emondako Zeanuriko berbakaz, eta nahiko fin ibili zan, "aitaren baserrira (Zeanurin berau) sarri etorritakoa zan txikitan eta". Dana



Bertsolariak Zeanurin.

DUNBA

Artea eskolan



Jorge Rubioren obra bat.

Zeberioko eskolako 6. mailako ikasleak

Zeberioko 6. mailako ikasleok arteaz berba egingo deutsuegu. Comenius proiektua dala eta,

Italiako Florenzia eta Taranto, Turkiako Yalova, Hungariako Hadjuboszormeny, Belgikako Ronse eskoletakoak eta gure eskolakoen artean Artea aukeratu dogu proiektuaren ardatza

izateko.

Herrialde bakotxak bere artista batzuk aztertuko dauz. Guk Zumeta, Oteiza eta hain ezaguna ez dan Aranberri artisten obrak aztertuko doguz. Euren biografiak be landuz, nortzuk diran jakin eta euskal artean zelango eragina daben edo izan daben ezagutu ahal izango dogu.

Horretarako Guggenheim museoak eskoletan artea landuteko daukan proiektuan sartzeako aukerea izan dogu.

Zemenditik maiatzera arte Jorge Rubio margolariak arte hezkuntza emongo deusku. Eguen guztietan ordu bat eta Erdiko saioa egingo dau gugaz.

Jorge Rubioren obra batzuk, margo-hormirudi erraldoiak, danok ikusi ahal doguz Bilbo eta beste uri batzuetan. Taldean egindako lanak dira. Benetan politikak, baina guretzat politena Zabala auzoan dagoan skater handia da.

Badaukaz be lan txiki asko, papelean eginda. Txikiak aukera

emoten deutsie margo eta formakaz esperimentuak egiteko.

Orain arte oinarrizko margoak zeintzuk diran, zelan nahastu euren artean barriak sortzeako, margo baten degradazinoa zurirantza eta abarrez egin deusku berba. Zumetaren obraren inguruan margoen kontrasteak be erakutsi deuskuz. Eta horren arabera jardun dogu, marrazki abstraktoak egiten edo degradazinoz banda batzuk egin eta gero horreen gainean marrazki espresionistak egiten. Lan horrek Oteizaren eskulturagintzeagaz lotzeako balio izango deusku. Oraindino ez dogu azken hori amaitu. Gure lanak museoan ikusi ahal izango dozuez urteteen azken pasiloan, bertan erakustaldia egingo dabe eta. Baina ez dakigu noiztik aurrera izango dan.

Bi edo hiru bisitaldi egingo doguz museora. Lehengo egunean Guggenheimen egon ginnan Jorge Rubioren azalpenak entzuten. Pello Irazu, Andoaingo



artista euskalduna, Claes Oldenburg eta Marcel Duchamp, Pop artea, janaria, jantziak, entxufeak, gailu elektronikoak material desbardinez eginda eta Egon Schiele, XX. mendearen hasierako marrazkilariaren obrak ikusi genduzan.

Badakizue titaniuma era zabalean lehenengoz Guggenheimen erabili zana? Edo kanpotik ikusita harrizko hormen ostean bulegoak dagozana baina titaniumez egindakoen barruan arte obrak?

AGENDEA

URTAILAK 18
AREATZA

22:00etan, *Blues Morning Singers*-en kontzertua The Quiet Corner-en.
BEDIA
18:00etan, astegoienerako eski urtekerea Baqueirara. Udaletxe ondoan.
LEMOA
Ganzabal Mendi Taldearen asanblada orokorra, Jubiladuen Etxearen goiko aretoan.
Sukaldaritza sakontzen eta Photoshop ikastaroetan izena emoteko azken eguna. Udaletxean.
20:00etan, *Ta oin ze?* antzezlanaren Karabie Gaztebtxean.

URTAILAK 19
DIMA

10:00etan, frutuarbolen inausketa eta elikadura tailerra.
IGORRE
22:00etan, zinea *Skyfall* Lasarte Aretoan.
LEMOA
10:00etan, genero bardintasunerako diagnostiko parte-hartzailea. Udaletik abiatuta kaleen eta espazioen diagnostiko ibiltaria.
10:30ean, Karabiko erreketareen urteurrenaren ospakizuna. Gaztebtxean.

URTAILAK 20
IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Panico en la granja*. 19:30ean, zinea *Skyfall* Lasarte Aretoan.
LEMOA
Ganzabal Mendi Taldearen urtekerea. Markinez-Maeztu (Belabia 973m, San Justi 1028m, San Cristobal 1057m).

URTAILAK 22
BEDIA

17:30ean, "Zelan kontau ipuin bat irudien bidez?" liburutegian.

URTAILAK 24
LEMOA

19:00etan, Memoria Historikoaren

proiekturako informazioa batzeako batzarra Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

URTAILAK 25
IGORRE

19:30ean, hileko azken barikua, Herriak antolatuta preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.
LEMOA
Lemoako Haur eta Gazteen XII. Ipuin Lehiaketan parte hartzeako epea amaituten da.
ZEBERIO
20:00etan, hileko azken barikua, Herriak antolatuta preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

URTAILAK 26
DIMA

10:00etan, frutuarbolen inausketa eta elikadura tailerra.
10:00etan, *Ciclofficina*, bizikleta tailerra. Udaletxean.
IGORRE
22:00etan, zinea *Un buen partido* Lasarte Aretoan.

URTAILAK 27
BEDIA

Umeentzako eski urtekerea Alto Campoo-ra. Ganguren Mendi Taldeak antolatuta.
IGORRE
17:00etan, umeentzako zinea *Rompe Ralph*. 19:30ean, zinea *Un buen partido* Lasarte Aretoan.
LEMOA
Goizean urtekerea Arratiatik. Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta.

URTAILAK 29
LEMOA

18:30ean, genero bardintasunerako diagnostiko parte-hartzailea: behin-behineko txostenaren aurkezpena eta eztabaidea. Jubiladuen Etxearen goiko aretoan.

URTAILAK 31
BEDIA

17:00etan, tailerra: gozokiak gordetzeko kutxa.

Liburutegian.

ZEZEILAK 1
DIMA

19:30ean, "Diman etxean gura doguz" errepresaliaduen aldeko konzentrazioa. Herriak antolatuta.

ZEZEILAK 2
IGORRE

22:00etan, zinea Lasarte Aretoan.

ZEZEILAK 3
IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea. 19:30ean, zinea

Lasarte Aretoan.



Brad, beste gau bat barrikadetan dokumentala Lemoan

Lemoan hileko azken domeketan dokumentalak emoten dabez arrastiko zazpiretan Eleizondo Kultur gunean, Argia emonaldia. Orain arte 7 dokumental eskeini dabez eta jentearen erantzuna ona izan da. Euskeraz edo euskerazko azpitoluakaz kalidadezko dokumentalak emitiduten dira Argia aldizkariak abiatu tako ekimen honetan eta Euskal Herriko hainbat herrik hartzean dabe parte.
Urtailaren 27an, *Brad, beste gau bat barrikadetan* dokumentala ikusteko aukerea dago Lemoan 19:00etan. Brad Will, dokumentalgile independente eta militante anarkistea zan. Willek 36 urte zituan eta dokumentalgile, kazetari eta argazkilari lez egiten eban behar New York, Bolivia eta Brasilgo Indymediarentzat. Mexikoko Oaxaka uriko gatazkan hil eben 2006ko urri bigarrenaren 27an.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU
SALGAI

Garaje partzela salgai Lemoa erdigunean. 660 549 695 Bego.
SALGAI
Haretzezko arasa ederra salgai. 139zm zabal, 50 sakon, 193 altuerrea. Ikusgai dago Elexalde 10ean, Igorren. 800 €. 615 731 182.

DANERIK
BASERRIA ALOKATU GURA
DOGU

Alokairuan dagoan baserri edo etxea gura dogun bikote bi gara. 685 707 176 Eider.

ETXEA ALOKATZEN DOGU

Alokairuan dagoan pisu baten bila gabizan neska arratziar bi gara. Alaitz eta Maider 652 722 698.

UMEAK JAGOTEN DODAZ

Arrastiko ordutegian umeak jagon edo klase partikularrak emoteko prest nago. Kotxeduna. Interesdunak deitu zenbaki honetara 600 759 434 (Naiara)

Telefonoa.

UMEEN ZAINTZAK

Umeakaz esperientzia daukan neska bat zuen seme-alabak jagoteko prest dago. kotxeduna (Pili 686 728 843).

KLASE PARTIKULARRAK

Euskal Filologian eta Haur Hezkuntzan titulauako neska gaztea naz eta klase partikularrak emoten dodaz. Esperientziaduna. 652 744 411 (Itziar).

GARAIEA ALOKAIRUAN

Garaje partzela bat alokatzen da Igorreko erdigunean. 659 395 911. Luis.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Un buen partido* filmarako.

Igor Estankona (Tolosa)
Karme Beobide (Zeanuri)



Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Skyfall* filmarako.

Ainhoa Etxazarra (Bedia)
Karabie Gazte Asanbladea (Lemoa)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 10 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU

	1	2	3	4	5	6	7
1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Kutun, laztan. 2.- Zemendi. Letra bat. 3.- Inontz. Zeozer ez dala sinisten adierazoteko interjekzioa. 4.- Bokala. Atoan. 5.- Limosnea. Bokala. 6.- Ulertua. 7.- Guzti. Zutitzeko agindua emoteko. 8.- Aluminioa. Umeen berbetan, min. 9.- Letra bat. Bailara.

GOITIK BEHERA

1.- ..., biga, higa. Zezenak ditu. 2.- Abizena. Alkatea dagoan leku. 3.- Haragia saltzean dau. Letra mutua. 4.- Era berean, bardin. Umeen berbetan, mosu. 5.- Hartu, tori. Engainu. 6.- Azken letrea. Barioa. Eup! 7.- Andrazkoen jantzi mota. Birritan, kokola.

N	V	R	V	H		6	S	V	X	O	R	I	T	S	I	X
U	P	U	P	L	V	8	V	W	O	X	V	H	O	X	Z	
L	U	Z	N	V		7	3	S	V	C	I	M	S	I	N	
							K	N	I	Z	I	V	V	O	N	
							V	A	S	I	M	S	I	I	R	
							X	V	I	N	S	V	A	V	O	
							I	I	V	S	I	S	V	X		
							1	V	X	I	V	N	S	Z		
							O	O	X	A	S	I	N	M	V	
							5	O	S	A	S	I	I	S	I	
							Z	S	V	M	S	V	Z	O		
							1	I	S	Z	N	S	V	I	O	
							7	1	S	I	Z	N	S	V	I	
							5	1	S	I	Z	N	S	V	I	
							6	1	S	I	Z	N	S	V	I	

Topau Bigarren Dibisino B-ko zazpi futbol talderen izenak.

S	A	L	A	M	A	N	K	R	A
O	R	A	L	U	Z	I	R	E	L
M	R	I	Z	A	R	R	A	S	A
O	I	A	E	G	U	Z	D	L	E
R	O	Z	B	A	M	B	A	G	A
R	L	A	B	I	Z	V	I	T	O
A	M	N	I	R	E	Z	E	O	D
Z	E	U	A	S	T	I	K	A	L
K	A	S	T	I	B	A	S	T	I
O	G	A	R	E	M	U	E	A	K
R	I	S	R	O	H	I	S	T	A
U	B	O	A	L	T	E	T	U	R
N	M	I	G	N	I	C	A	R	E
A	Z	K	O	N	A	R	O	M	A
R	I	S	J	I	R	O	K	A	S

AKI MI KO

Iman Olatu



OPEL

Ibaigane, S. Coop. Ltda.

Estuñón, 15
48330 LEMOA (Bizkaia)
Tel: 631 33 30 - 631 31 31
Fax: 631 36 15

ARA OTZ

Landareen O Jabetzen!

Tel: 94 631 60 05 - e-mail: info@arautz.com

Barru Ugarana 2. al. - ADAR (Donostia) - Bizkaia

www.arautz.com

expert ARRATIA

E posta: expertarratia@cordevi.com

Lehendakari Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

GARANTXE Autoeskola

TEORIA BUKARAZ ZEIN ERDARAZ

Balneario: A1, A, BTE, B

Lehendakari Agirre, 31
Ttasa: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@eskola-arria.net

GALANTA

Barrutik jarzteko
Zugandik sano hurbil

Lehendakari Agirre 25, Igorre

Telefona: 94 631 90 08

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburetan pintxo bereziak

ARRATIKO ZEKORRAK

arratiko.zekorrak@gmail.com

http://santxisme.blogspot.com/

arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Airekondizio sistemen - Aire zurgintza zentralizatuak
Suteak kontrolatzeko berrikuntza eta mantentze lanak

Igarroko Industrias, Pab. 37
Tel. Fax 94 673 62 76
631 734 616
48140 Igorre Bizkaia

Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri ikastetxeak 2 urtetik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoa

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 40 22 Faxa: 94 673 40 22 Igorre

Areatzak Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Btxilergoak, Hezkuntza zikloak

XABIER PASTOR

"Pupu eta Lore kopinak gomendatu dodaz asko"

Xabier Pastor, 23 urteko igorreztarra da eta gabon-lan bat topau dau: Eroskin jostailuen atalean bezeroen laguntzaile, jostailuak ondo erosi gura bai, baina zalantzak dituelako askok. Beragaz egin dogu berba umeentzako oparien gainean.

Clara Luja Azpiri

Ze ikasketa egin zenduzan lan hori egiteko?

Delineatzaile izateko ikasketak batzuk egin ostean, Haur Hezkuntzako gradu bat egin neban, bagilean amaitu nebana. Master bat egiten be hasi nintzan, ikerkuntzaren gainekoa, baina itxi egin neban. Gabonetan Gernikako Eroskin egon naz beharrean, jostailu sailean erosilei lagunduten eta aholkuak emoten. Gabonetako lana baino ez da izan, egun garrantzitsuenean egitekoa bakarrik.

Zelan topau zenduan lan hau?

Edozerren bila nenbilen eta eskeintza hau agertu jatan telefonon daukadan lana topetako aplikazio baten. Curriculum bidali eta, bueno, hartu ninduen.

Zer da egin behar izan dozu-na?

Baten bat etorten zanean jostailuren bat erostera, nik lagunduten neutsan. Jente gehienak badaki zer gura dauan eta nik egin be-

har neban gauza bakarra non egoan esatea zan, baina beste batzuek ez dakie zer oparitu eta orduan nik zerbaist aholkatzen neutsen. Persona gehiago ibiltan dan ez erostetak egiten Gabonetan, dendetan laguntzea behar izaten dabe. Pozik nago, interesgarria izan da.

Aurten be jente asko egon da erostetak egiten? Ez da konsumo jeitsierarik igarri?

Ba jente nahikoa egon da jostailuak erosten, azken momentuan batez be. Dana dala, ni jostailu sailean bakarrik ibili naz eta ez dakit zenbat jente pasau dan guztira supermerkadutik edo kajatik. Baina jente mordoa egon dala uste dot.

Zer motatako jostailuak dira salduenak?

Neskentzat Monster High ize-neko kopinak dira arrakastarik handiena izan daben jostailuak eta mutilentzat Spider-Man eta holako pertsonajeen jostailuak. Sano bananduta dagoz generoaren arabera jostailu gehienak.

Balantzea egiterakoan, zeintzuk**izan dira lan horren alderik onenak eta txarrenak?**

Bezeroak kontaktua da parterik onena, nire ustez. Hareei lagunduten eta jostailuak gomendatzen ondo pasetan da. Alderik txarrena... ez dakit. Beharbada zerbaist gomendatzen dozunean eta esaten deusunean "baina hori ez da mutilentzat". Jostailuak sexistak ez dirala izan behar ikasten dogu, baina gero oso kontrolauta dago hori eta bezeroak ez dabe oso kontuan hartzean.

Jostailu bat gomendatzekotan, zein gomendatuko zeunke?

Bat gomendatzea gatxa da: kon-

tuan hartu behar dira umearen adina, gustuak eta abar. Baina zerbaist gomendatzekotan euskerazko jolas eta jostailuak gomendatuko neukez. Hiru edo lau gauza dagoz euskeraz Eroskin eta nahiko ondo dagoz. Adibidez, Pirritx eta Porrotx pailazoen Pupu eta Lore kopinak asko gomendatu dodaz.

Aukerea izatekotan, jostailuen munduan barriro be lan egitea gustauko litxakizu?

Bai, ondo pasau dot Gabonetako lan honetan eta ez neuke arazorik izango errepikatzeko. Mundu interesgarria da. Orain, lan bila jarraituko dot.

Jente gehienak badaki ze opari erosi gura dauan

Generoen arabera oso bereizituta dagoz jostailuak



FINANTZAZIOA 6 HILABETERAKO INTERES BARIK

* 1.500,00€tik gorako zenbatekoetan * Finantzazioa BBKren bidez * Irekiera eta kudeaketa gastuak bezeroaren kontura

Garbe 2 – IGORRE

94 631 51 03

info@mugarri.eu

